

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Aranzadi Zientzia Elkarteak fusilatuen 25 gorpu topatzen saiatzen ari da Iberoko Zurbau parajea

Ollo kontseilaria gorpuak hobitik ateratzeko lekuan bertan izan da, eta lan horiek beste astebetez luzatuko dira

Lunes, 07 de diciembre de 2015

Aranzadi Zientzia Elkarteak beste bospasei egunez luzatuko ditu gorpuak topatzeko eta hobitik ateratzeko lanak Iberoko Zurbau parajea. Memoria historikoaren familia eta elkartearen ikerketek adierazten dutenez, toki horretan 25 eta 30 pertsona arteko gorpuzkiak egon daitezke 1978an Larragako herritarrek topatutako hogeitabat gorpuri erantsita. Oraingoan, lau gorpu oso aurkitu dira.



Ollo kontseilaria, senideen bila dabiltzan bilobekin, Aranzadiko kideekin, AFFNA eta Oltza Zendeakoeekin.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria Ana Ollok eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Alvaro Baraibarrek parajea bisitatu dute gaur goizean. Paco Etxeberria forentseak Nafarroako Gobernuaren Foru Komunitatean gorpuak hobitik ateratzeko lanetan egon izana azpimarratu du. "Lehen aldia da", helarazi du.

Gorpuak hobitik ateratzeko lanak Nafarroako Gobernuak emandako [laguntzen](#) barnean egiten ari dira, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak Aranzadi Zientzia Elkartearekin, [Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkartearekin \(AFFNA-36\)](#) 'Amapola del Camino' Memoriaren aldeko Nafarroako Herrien Koordinakundearekin, Oltza Zendeako ordezkariarekin eta senideekin beraiekin egindako bilkuren ondoren.

Senideez eta AFFNA-36ko kideez gain, Oltza Zendeako Moises Garjon alkatea eta udalerriko bizilagunak ere hurbildu dira bertara, ingurua egokitzen ari direnak memoria historikoaren mugarri bat altxatzeko.

UGT eta PSNko kideak

Larunbatean hasi ziren lanak eta orain arte zazpi gorpuzki topatu dira, haietako

lau gorpu osoak, metro bateko sakoneran. Iruñeko hamaika bizilagun, Garesko sei, Obanosko beste sei ere, Uharte Arakilgo hiru (haien artean, alkatea), Berbintzanako bi eta Ondarroako beste bat lurperatuta daudela uste da, batzuek besteengandik `pilo´txikietan berezita.

Fusilatuen artean, Iruñeko talde sozialistako, UGTren sortzaile eta Iruñeko zinegotzi Gregorio Angulo Martinena ageri da. Bertan dago ere, hiriko beste zinegotzi bat –Jose Roa Garcia– eta kolpe militarren uneko UGTko militanteak, bai eta beste filiazio politiko batzuetako pertsonak ere (CNT, IR...). Toki horretaraino bertaraino hurbildu dira gaur goizean PSN eta UGTko idazkari nagusi María Chivite eta Javier Lecumberri.


Olo kontseilariak azpimarratu duenez, lan horiek "berandu" egin dira, baina nabarmendu du Nafarroako Gobernuak "oso argi duela" gorpuak hobitik ateratzeko lanak "lehentasunezkoak" eta "premiazkoak" direla, beren senideak bilatzen ari diren zuzeneko familiarak baitaude oraindik. "Nafarroako Gobernuak oso argi du pertsona horientzako justizia, erreparazioa eta egia egon behar direla", esan du eta, jarraian, 80 urtez memoria bizirik mantendu duten elkarte, senide eta ikertzaileei eskerrak eman dizkie. 2016. urterako, Aurrekontuen proiektuak 75.000 euro esleitzen ditu Aranzadi elkartearekin izenpetutako [hitzarmen](#) baten barnean.

Paco Etxeberría forentseak adierazi duenez, berriz, gorpu guztiak ezin dira beti topatu edo identifikatu. "Ezingo ditugu guztiak aurkitu, baina berreskuratzen den gorpu oro guztiona da", azaldu du. Gorpuak hobitik ateratzeko lanetan, erakundeek, Gobernua eta udala, erakutsitako "sentsibiltatea eta inplikazioa" eskertu ditu.

Galería de fotos



Olo kontseilaria eta Álvaro Baraibar, María Chivite (PSN) eta Javier Lecumberriekin (UGT).



Gorpuak hobitik ateratzeko lanen ikuspegi orokorra.



Paco Etxeberría, Aranzadiko forentsea.